



Ajangizko Udala

AJANGIZKO UDALAK 2012KO MARTXOAREN 28AN OSPATUTAKO OHIKO BILKURAREN AKTA.-

Batzarreratuak:

Alkatea:

Mikel Ander Zubizarreta Gonzalez-Rua jauna

Zinegotziak:

*Beñat Onaindia Goñi jauna
Aiora Berrojalbiz Olaeta andrea
Beñat Madariaga Aurrekoetxea jauna
Ismael Oar Arteta Undabeitia jauna
Jesus Maria Ajuria Odriozola jauna*

Bitarteko Idazkaria:

Saioa Pineda Aranburu andrea

Ajangizko Udaletxean, 2012ko martxoaren 28an arratsaldeko 18:30etan eta horretarako deialdia egin ondoren, Udal Osoa biltzen da ohiko bilera ospatzeko, goian aipatutako zinegotziekin.

Esandako orduan, Alkate Presidenteak gutxienezko kopurua dagoela ikusita, bilera hasi du.

1.- AZKEN BILERETAKO AKTAK IRAKURRI ETA ONESTEA, BEHAR BADA.-

2012ko urtarrilaren 25ean izandako ohiko bileraren akta aurkeztuta, Beñat Onaindia zinegotzi jaunak, 9. Puntutan Kutxabankeko administrazio kontseiluaren ordezkartzari buruz berak esandako hitzak argitu nahi dituela adierazten du, aktan jasotakoak ez baitu berak esandakoa zuzen adierazten.

Ondorioz, 2012ko urtarrilaren 25eko aktan, 9. puntuan Beñat Onaindia zinegotziak aipatutakoan zera esan behar du:

Beñat Onaindia zinegotziak adierazten du, EAEko lau familia politiko garrantzitsuenek hiru herrialdeetako 20 kidek osatutako administrazio kontseilu bat izendatzeko akordioa hartu zutela. Gero, PNV eta PP-k administrazio kontseilua 15 kidera murriztea erabaki zuten, Bildu eta PSE administrazio kontseilutik kanpora jartzeko helburuarekin. Kontseiluko kide guztiak PNV eta PP-k izendatzea ez du oso demokratikoa denik uste.

Zuzenketa hau eginda, 2012ko urtarrilaren 25ean izandako ohiko bileraren akta hautespenerako jarrita, bertaratutako zinegotzi guztiak onartu dute.



Ajangizko Udala

2.- ALKATETZAK EMANDAKO DEKRETUEN BERRI EMATE ETA ONESPENA, BEHAR BADA.-

• **Abenduaren 30eko 2011/141 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** 2007 eta 2008 urteetako zordunpenganako kobratze eskubideen bertan beherako zehaztapidetza onartzea.

• **Abenduaren 30eko 2011/142 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Aurreko aurrekontuetako obligazioen anulazio eta zuzenketa onartzea.

• **Abenduaren 30eko 2011/143 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** 2011ko aurrekontuko aurrkontuz kanpoko kontzeptuen erregularitzaioa.

• **Urtarrilaren 12ko 2012/01 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Kanpantxu 67 etxeko lorategiko inguruko itxitura konpontzeko baimena.

• **Urtarrilaren 24ko 2012/02 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Maier Technology Centre S.Coop.-MTCK eskatutako lehen erabilerarako baimena ematea MTCrak centro teknologikoaren handitzeari.

• **Urtarrilaren 24ko 2012/03 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 20ko 214/2011 Foru Dekretuan oinarrituta, Ajangizko argiteri publikoan argi-kutsadura saheiztu eta energia erabilera murrizteko proiekturako diru laguntza eskaera.

• **Urtarrilaren 30eko 2012/04 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Maier S.Coop.eri pabiloiko estalkiaren atal bat altxatzeko baimena.

• **Urtarrilaren 30eko 2012/05 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Polikiroldegirako diru laguntzak.

• **Urtarrilaren 30eko 2012/06 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Gernikako Musika Eskolan errolatuek eta errola-gabeek ordaintzen dutenaren arteko diferentzia ordaintzea dirulaguntza modura.

• **Urtarrilaren 30eko 2012/07 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Maiatzaren 5ean iluntzeko 8:00etan Ajangizen Bizkaiko abesbatzen elkarteak antolatzen duen emanaldirako 400 euroko laguntza onartzea.

• **Otsailaren 2ko 2012/08 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ondasun inbentarioan 32 zenbakiarekin jasota dagoen bidea inskribatzea.

• **Otsailaren 9ko 2012/09 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko Udaletxeko idazkaritza-artekaritza lanpostua betetzeko ohiko lehiaketaren oinarri espezifikokoak.

• **Otsailaren 17ko 2012/10 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Polikiroldegirako diru laguntzak.



Ajangizko Udala

• **Otsailaren 17ko 2012/11 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** 2012ko polikiroldegiko kuotaren familia ugarietzako laguntza.

• **Martxoaren 1eko 2012/12 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Kanpantxu 79, Martutxu etxean, arrautza ekologikoen ustiapenerako jarduera baimena.

• **Martxoaren 1eko 2012/13 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Egurra herri bideetatik ateratzeko jarritako bermearen itzulketa.

• **Martxoaren 2ko 2012/14 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Polikiroldegirako diru laguntzak.

• **Martxoaren 2ko 2012/15 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** 2012ko Gernika Lumoko polikiroldegiko kuotaren familia ugarietzako laguntza.

• **Martxoaren 2ko 2012/16 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Euskera ikasteko ikastoroko matrikularen %20-a ordaintzea diru laguntza modura.

• **Martxoaren 15eko 2012/17 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Polikiroldegirako diru laguntzak.

• **Martxoaren 15eko 2012/18 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajanagiz, Ereño eta Nabarnizko Udalen arteko pila bilketari buruzko hitzarmena dela medio, 2011ko bilketaren likidazioaren onarpena.

• **Martxoaren 15eko 2012/19 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Barrutia Eskualdeko Eskola Publikoaren Guraso Elkarteari, larehun eta berrogeita hamar (450,00 €) euroko laguntza ematea, eskolaz kanpoko orduetan burutzen diren ekintzetarako monitore kostuari aurre egiteko, 2012 urteko aurrekontuaren gain.

• **Martxoaren 16ko 2012/20 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko Udalak 2009 urtean gizarte larrialdietarako erabili ez zuen kopurua Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari bueltatzea.

• **Martxoaren 16ko 2012/21 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko Udalak udaletxeko eraikuntzaren arrakalen eboluzioa jakiteko beharrezko diren neurketak Euskontrol S.A. enpresari agintzea.

• **Martxoaren 16ko 2012/22 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Mendieta 59 etxe inguruko eraikinen legeztapen eskaera.

• **Martxoaren 21eko 23/2012 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko frontoi berriaren eraikuntzan izandako prezio gehikuntza justifikatzeko epe ematea lanen zuzendaritzari.



Ajangizko Udala

• **Martxoaren 21eko 24/2012 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Frontoi inguruko urbanizazio lanen exekuzioan izandako prezio gehikuntza justifikatzeko epe ematea lanen zuzendaritzari.

3.- 2012KO MOTORDUN IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA PADROIAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-

2011 urteari dagokion trakzio mekanikozko ibilgailuen errolda aurkeztuta, Udalbatza osoak aho batez ondorengo

EBAZTEN DU:

Lehenengo.- 2012 urteko Trakzio menakizko ibilgailuei dagokion Zerga Errolda onartzea.

Bigarren.- Tributuei buruko Abenduaren 28ko 230/63 Lege Orokorreko 124. Atalak eta martxoaren 26ko 3/86 Tributuen Foru Arau Orokorreko 125.2 artikuluan araututakoarekin bat, irgarki honek Trakzio Mekanizko Ibilgailuen gaineko zergari dagokionez zergapekoei zuzendutako jakinerazpen kolektiboaren ondorioak izango ditu.

Hirugarrena.- Iragarria Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera hamabost (15) eguneko epean, errolda jendaurrean arkezten da, interesdunek errolda aztertu eta bidezko deritzaten alegazio edo erreklamazioak aurkezterik izan dezaten.

Laugarrena.- Epe hori igarota erreklamaziorik aurkeztu ezean, errolda behin betiko onartutzat joko da.

Non. Noiz eta nola ordaindu

.- Borondatezko ordainketa, gaionardainik gabekoa.

a) Epea: 2012ko maiatzaren 1etik 2012ko ekainaren 1era (bi egun horiek barne)

b) Non eta nola ordaindu: Domiziliatu gabe dituzten zordunek, Banketxean edo Udaletxean jendaurreko ordutegian ordaindu dezakete, dagozkien inprimakia aurkeztuz. Zergadunek ordainagiriak banketxean helbideratu dezakete.

Inprimakiak jaso ez izana edota ordainagiritan akatsen bat egoteak ez du ordaindu beharra salbuesten

Borondatezko epea igarota ordainketa burutuko ez balitz, premiabidez kobratzeari ekingo zaio, Bilketarako Erreglemendu orokorreko 95 eta 96 artikulua aplikatuz, %20ko gainordainaz, berandutze interesak, gastuak eta kostua gehituz.

Indarreango xedapenen arabera, zerga honen ordainketa gauzatu ezean, ezin izango da ibilgailuaren alta, baja zein eskualdaketarik egin.

4.- AJANGIZKO UDALA BISCAYTIK PROIEKTURA ATXIKITZEKO HITZARMEN MARKOAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-



Ajangizko Udala

Alkateak Biscaytik proiektuaren bitartez udalak tramitazio telematikoa martxan jartzeko duen aurkeraren berri ematen du. Proiektu honekin Bizkaiko Foru Aldundia egingo da kostuaren kargu, udalari mantenimendua eta domeinuen kostuak utzita.

Plenora aurkezten den hizarmen markoaren helburua, BiscayTIK proiektuarekiko Ajangizko udalaren atxikimenduaren oinarri arautzailea ezartzea da, bai posta elektronikoa zerbitzuari, bai BiscayTIK sistema informatikoari eta baita udalak eskura izango dituen beste zerbitzu gehigarriei dagokienez ere.

Hitzarmenaren xedeari dagokionez, Hitzarmen Markoaren garapena BiscayTIK Fundazioaren eta Udalaren artean egingo diren hitzarmen edo akordio espezifikoaren bidez gauzatu da, eta bertan ezarriko dira modu zehatzean alderdien termino, baldintza, eskubide eta betebeharrak hitzarmen makoraren xede diren zerbitzu desbedinei dagokienez.

Hitzarmen markoaren edukiaren hedatze eta ezarpenak, garapenarekin batera, Udala herriarrei zerbitzu publiko elektronikoa emateko esparruan sartzea ekar lezake eta, horrekin batera gai hori arautzen duen legediaren alderdi guztiak betetzeko betebeharra sor lezake. BiscayTIK proiektuak eta bere zerbitzu guztiek indarrean den legedia betetzen laguntzen dute; hala ere, alderdiek sinatutako akordioetan aurreikusi gabe dauden eta BiscayTIK proiektuak ematen ez dituen legezko edo antolakuntzako alderdiei edo alderdi teknikoiei dagokienez, Korporazioaren erantzunkizuna ez da baztertuko.

BiscayTIK proiektua honako zerbitzuek osatzen dute:

- a. Posta Elektroniko zerbitzua: Bizkaiko herritar guztien posta elektronikoa sartzeko web plataforma da.
- b. BiscayTIK Sistema Informatikoa: herritarrek beraien izapideak egin ahal izateko webguneak, udal kudeaketarako sistema integralak, BiscayTIK Sistema Informatikora lekualdatzeko zerbitzuak eta BiscayTIK Sistema Informatikoaren mantentze-lan zerbitzuak osatzen duten zerbitzu multzoa.
- c. BiscayTIK Sistema Informatikoaren zerbitzu gehigarriak. BiscayTIK Fundazioak hainbat zerbitzu gehigarri emango dizkio Udalari, baldin eta Udalak hala eskatzen badu eta alderdiek horretarako hitzarmen edo akordio espezifikoak sinatzen badituzte: erabiltzaileentzako laguntza, erabiltzaileentzako prestakuntza, segurtasunerako ahilkularitza ...

Hitzarmen Markoa botaziora aurkeztuta, bertaratutako sinogotziek aho batez onartzen dute.

Halaber, proiektua aurrera eramateko aurrerantzean sinatu beharreko hitzarmen espezifikoak sinatzeko Alkate Udalburua ahalmentzea onartzen dute.

5.- 2012 URTEKO UDAL AURREKONTUEN ONARPENA, BEHAR BADA.-

Alkate Udalburuak, aurrekontuak osatzen dituzten dokumentuak aurkeztuta, bertan jasotzen diren partida aipagarrienak azaltzeari ekiten dio.



Ajangizko Udala

Hasi aurretik aipagarriena aurrekontuak izan duen jaitsiera orokorra da, %8ko jeitziera jasotzen bait da, gaur egungo ekonomia egoeraren adierazgarri.

Sarrerekin hasita, lehenengo kapituluan langilegoaren kostua jasotzerakoan, langileen soldatak konjelatu egin direla azpimarratzen du. Horrez gain, aipagarria da Elkarkidetzari dagokion partida ere. Esagun danez, Rajoyren 2011/20 Erret Dekretu Legeak sektore publikoko gizarte aurreikuspeneko aportazioak zuhurtziaz indargabe uztea arautu du, defizit publikoa murrizteko neurrien artean.

Indargabe usten diren aportazioak sektore publikoko langileen jubilazioarekin lotuta doaz. Hala ere, Elkarkidetzak jubilazioaz gain beste kontingentzia batzuk ere jasotzen ditu, hala nola ezintasuna edo heriotza. Ez dago beraz argi Dekretu Legea noraino aplikatu beharko litzatekeen eta Elkarkidetzak bezalako erregimenei aplikatu behar zaien edo ez.

Araua errekurritu egin dute erakunde desberdinek, besteak beste EUDEL, Bizkaiko Foru Aldundiak... eta oraindik espainiako gobernuak hartuko duen erabakiaren zain daude.

Ajangizko Udala Rajoyk hartutako neurri horrekin bat ez datorrela kontutan hartuta, oraindik orain Elkarkidetzako aportazioekin aurrera egitea proposatzen du, espainiako gobernuaren ebazpenaren arabera bere momentuan bidezko neurriak hartzeko.

Bestalde, sarreren kasuan VII. Kapituluak, capital transferentziei buruzkoak dauka beherapenik handiena, %75. Honen arrazoirik nagusia, konfirmatu gabeko diru laguntzarik sartu ez dela da.

Azkenik, VIII eta IX. Kapituluak aipatu daitezke. Lehenengoak Eusko Jaurlaritzak 2012an onartu dituen aurreko urteetako diru laguntzen kofirmazioa jasotzen du. Bigarrenak berriz, aurrekontuko sarrera eta gastuak parekatuko dituen kreditua aurreikusten du. Udalaren asmoa kreditu gabe aurrekontua aurrera ateratzea da, 2011ko likidazioaren ondorioz izan den aurrezkiekin.

Gastuei dagokienez, gastu korrontea mantendu edo murriztea da udalaren helburua. Pertsonalari dagokion partidan, 2011ko aurrekontuarekin parekatuz igoera nabarmentzen bada ere, Kultur Etxerako lanpostu berri bat eta udal operariaren ordezkotza aurreikusi direlako da.

Gastuetan partidarik aipagarrienak VI. Kapituluari dagozkie, inbertsioei. Hauetan %32ko jeitsiera jaso da orokorrean, zenbait proiektu estrategikori lehentasuna emanez. Hoiien artean argiteri publikoaren energia murrizketa bilatzen duena edota Kanpantxuko bideen konponketa. Horrez gain, oraindik ordaintzeko dauden frontoiko eta inguruko urbanizazio lanak ere jasotzen dira.

Ismael Oar-Arteta zinegotziak, “Tecnología para la ciudad inteligente” titulupeko artikulua bat aurkezten du, Cilab izeneko enpresa batek argindarraren kontsumoa jeisteko duen proiektuaren berri emanez. Artikulua usten du, udalak argindar publikoaren energia kontsumoa murrizteko duen proiektuaren aurrean izan daitekeen beste aukera batem modura.

Bestalde, inbertsioetan partidarik handiena Kanpantxuko bidea konpontzea dela aipatzen du Oar-Arteta jaunak. Bere esanetan, obrak hobetzeko egiten dira, eta Kanpantxuko bidea oso estua da. Bidearen zorua konpontzeaz gain zabaldu egin beharko litzateke, bide gorria egin... Inguru hartako trafikoa nabarmena da Maierrera doazen auto eta kamioiekin, gainera beste hiru etxe egiteko aukera



Ajangizko Udala

dago... eta horrek trafikoa gehituko duela aipatzen du. Agian bidea zabaltzeaz gain trafikoa ere egokitu beharko litzateke. Gaur egun bi auto elkarren aurrean suertatuz gero, edo kamioi bat, zabor kamioia adibidez, ez dago pasatzeko aukerarik, eta horri konponbidez eman beharko litzaioke. Bere esanetan aurrekontua urria da behar den lana egin ahal izateko.

Alkateak Maierreko zubitik plazara bitarteko karkabak hormigonatu egingo direla azaltzen du, eta horrek bidea zabaldu egingo duela. Legineneko bidea estuagoa da, eta hor bai aurreikusten da zabaltzea. Bestalde, landa eremu bat dela kontutan hartu behar da, eta bide gorria jartzea ere kontutan hartu dela. Dena dela ingenieroarekin komentatuko da bidea ahalik eta zabal eta erosoan usteko.

Oar-Arteta jaunak Errenteritik Ajangizera bitarteko oinezko biderik ez dagoela aipatzen du, eta hori sortzea beharrezko litzatekeela.

Bere taldeak aurrekontuen kontra egingo duela aipatzen du, 6. kapituluan jasotako 140.000 euroak nahikoak ez direlako. Proiektu berri bat eskatzen du, diru gehiagorekin, bidearen egoera osotasunean konponduko lukeena. Aurrekontuan beste inbertsio batzuk badirela aipatzen du, horren garrantzitsuak ez direnak, adibidez Ajangizko biodibertsitateari buruzkoa.

Alkateak, proiektu hori 2011 eta 2012rako Eusko Jaurlaritzak %100ean diruz-lagundutako proiektua dela aipatzen du. 2011 urteko ekintza burututa dagoela, eta nahiz eta diru laguntza onartuta izan, 2012ko ekintzak ez direla burutuko diru laguntza hori jasoko dela ziurtatu arte.

Ismael Oar-Arteta jauna beste partida batzuekin ere bat ez datorrela aipatzen du. Adibidez, liburutegirako liburuak lortzeko partida urri ikusten du.

Alkateak, liburutegian liburuak erosteko lista zabal bat egoten dela aipatzen du, eta interesa dutenek nahi dituzten liburuak eskatzeko aukera dutela. Iaz urte bukaeran haurrentzako pelikula eta ipuinak eskuratu ziren aurrekontua osatzeko, ez bait zen inolako eskaerarik egon. Horren arabera osatu da aurtongo aurrekontua.

Alkatetzak 2012 urteko Udala aurrekontuen behin behineko onarpenerako aurkeztu duen zehaztapidetza osoa kontutan hartuta.

Zehaztapidetza hori osatzen duten honako dokumentu hauek aztertuta:

- .- Ekitaldian kitatzeko sarrera eta gastuen ustezko egoera
- .- Aurrekontuaren edukinari eta aldaketa nagusienei buruzko memoria
- .- Konpromiso kredituei buruzko ziurtagiria
- .- Transferentzia arrunt eta kapital transferentziei buruzko eranskina
- .- Pertsonalari buruzko eranskina
- .- Udala Aurrekontuen exekuzio araua.

Aurrekontu orokorra 917.673,86 €koa dela kontutan hartuta, honako sarrera eta gastuen kapitulutan banatuta:

GASTOS	INGRESOS
---------------	-----------------



Ajangizko Udala

I. KAPITULUA	197.650,03	I. KAPITULUA	113.220,04
II. KAPITULUA	333.003,19	II. KAPITULUA	38.000,00
III. KAPITULUA	-----	III. KAPITULUA	86.302,00
IV. KAPITULUA	34.233,40	IV. KAPITULUA	399.405,65
V. KAPITULUA	-----	V. KAPITULUA	11.150,88
VI. KAPITULUA	341.367,26	VI. KAPITULUA	151.650,00
VII. KAPITULUA	-----	VII. KAPITULUA	41.917,00
IX. KAPITULUA	11.416,98	IX. KAPITULUA	76.028,29
GUZTIRA	917.673,86	GUZTIRA	917.673,86

Idazkari kontuhartzailearen eta Ogasun Batzordearen aldeko txostenetan oinarrituta, 2010 urterako udal aurrekontua, pertsonalaren eranskina eta udal aurrekontuen exekuzio araua botaziora aurkezten dira, honako emaitza honekin:

- Aldeko botuak: 4 Bildu taldeko zinegotzienak
- Kontrakoak: 2 EAJ-PNV taldeko zinegotzienak
- Abstentzioak: Ez daude.

Jasotako emaitza kontutan hartuta, Alkateak 2012ko aurrekontuak behin behinez onartutzat jotzen ditu, pertsonalaren eranskina eta udal aurrekontuen exekuzio arauarekin batera.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 2 ko 10/2003 Foru Arauak, 15 artikuluan xedatzen duenaren arabera, jendaurrean azaltzen da, Udal honetako Idazkaritzan aztertzeko eta erreklamazioak aurkezteko.

Delako 10/2003 Foru Arauaren 17. artikulua arabera horretarako eskubidea izan dezaketen interesatuek, beraien erreklamazioak 15 laneguneko epean aurkeztu ahal izango dituzte, iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Erreklamazioak Udaltzatzen aurrean aurkeztu beharko dira.

Adierazitako informazio epea igaro ondoren erreklamazio edo oharrik aurkeztuko ez balitz, aipaturiko Aurrekontu Orokorra behin betiko onarturik dagoela ulertuko da, akordio berririk zertan hartu gabe.

6.- GERNIKA-MARKINA LURRALDEAREN ZATIKAKO PLANAREN HASIERAKO ONARPENA DELA ETA BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-

Alkate Udaltzatzen Gernika-Markina lurraldearebn zatikako planaren hasierako onarpena dela eta Bildu udal taldeak aurkeztutako mozioa irakurtzen du.

AJANGIZ UDALDEKO MOZIOA

Lurraldearen antolamentua eta planifikazioa, gainean dugun ekonomia, ekologia eta energia izaerako krisiari aurre egiteko ezinbesteko tresna da. EAE-an lurralde antolamenturako legez dagoen instrumentua "Lurralde Antolamenturako Artezpideak" (LAA) dira, egun, berrikuspen fasean daudenak.



Ajangizko Udala

Lurraldearen Zatikako Planak (PTP) LAA-etan zehazturikoa garatzeko bitartekoak dira. Busturialdea eta Lea Artibairi, Gernika-Markina PTPa dagokio eta bertan definitzen da eskualde biotarako eredu sozioekonomikoa, etxebizitzak, azpiegiturak eta jarduera ekonomikoak.

Egun gutxi barru Euskadiko Aldizkari Ofizialean Elkarte Autonomo mailako LAA-n berrikuspenaren hasierako onarpena argiaratuko den une honetan, ez dauka zentzu askorik, haren garapena izan behar den plangintza hau (PTP-a) aldi berean abian jartzea, alde juridikotik goragoko mailan dauden LAA-n edukiak eta artezpideak ze norabide hartuko duten ez dakigunean oraindik.(Lurralde Antolamendurako 4/1990 Legearen 11 artikulua)

Gainera aurkeztutako PTParen dokumentuari ondoko gabeziak aurkitu dizkiogu:

-Diagnostikoko datuak eta estatistikak oso zaharkituta daude; lana eta langabeziaren datuak eta ume eskolarizatuen datuak 1996koak dira; populazioaren datuak 2001koak dira; etxebizitza beharren inkesta 2000. urtekoa; nekazaritza eta abeltzantzako datuak 1999koak, e.a.

-Bizkaiko Foru Aldundiak metodologia “bertikala” erabili du, gabinetekoa. Ez da egon inkesta zuzenik bertako agente, eragile, erakunde eta abarrekin, aldiz, lurralde eremu berean eta Urdaibaiko Jarduera Sozioekonomikoen Egokitzapen eta Garapenerako Egitaraua (PADAS) lantzen hasi zen garaian bilera sektorial osotarikoak egin ziren, zuzeneko datuak, inkestak, asmoak... bertako protagonistengandik zuzenean jasotzeko. Hori da guretzako oinarritik egoki hasitako gizarteratze prozesu aurrerakoi baten adibidea.

Urruntasunaren beste adierazgarrietako bat dokumentuaren idazle taldea Madrilgo gabinete bat izatea da, hemengo errealitate oso urrun dagoena.

Horrez gain, LZP hau burutzeko ez da benetazko prozesu partehartzailerik abian jarri. Egin den bakarra Udalei informazioa eskaintzea izan da, norabide bakarreko inkomunikazio prozedura formalista baten bitartez.

Azkenik, Busturialdea eta Lea-Artibai batzea area funtzional berean ez da lurralde estrategia bideragarria, ez baitago euren arteko jarduera funtzional askorik. Eskualde bakoitzak bere izaera du, eta bere LZP propioa beharko luke. Berrikusten ari diren LAA-ek eskaera hau jaso beharko lukete.

Goian aipaturikoagatik, AJANGIZ-ko udalak zera eskatzen du:

MOZIOA

AJANGIZ-ko Udalak eskatu egiten dio Bizkaiko Foru Aldundiari Gernika-Markina eskualde egituraren Lurralde Zatikako Plana hau bertan behera uztea goian aipatutako arrazoiengatik.

*Bizkaiko Foru Aldundia Lurralde Zatikako Planaren inguruan eztabaida eta prozesu partehartzaile, publiko eta garden bat irekitzea premiatzen dugu. Hiru ardatz hauetan oinarritua:
*Lurraldearen diagnostiko erreala (datuen eguneraketa)**



Ajangizko Udala

Gaur egungo ekonomia, gizarte, ingurumen, eta kultura arloko erronken zehaztapena prozesu hausnartu eta lotesle baten bidez (gaikako bilerak eragile eta herritarrekin, gutxienez bost ardatz sektorialen inguruan: ingurumena eta iraunkortasuna, ekipamentuak eta zerbitzu publikoak, etxebizitza politika, mugikortasuna eta jarduera ekonomikoak (lehenengo, bigarren eta hirugarren sektoreak). Honetarako gutxienez, 7 hilabetetako parte-hartze prozesu bat eskatzen dugu.

Adostutako oinarrien zehaztapena

Horrez gain, Bizkaiko Foru Aldundiak bi LZP ezberdin egingo ditu, bata Busturialdean eta bestea Lea-Artibain, eskualde bakoitzak bere izaera eta berezitasunak izan baititu beti eta orain ere.

AJANGIZ-en, 2012ko martxoaren 28an

Mozioa botaziora aurkeztuta, honako emaitza jaso du:

- Aldeko botuak: lau (4) Bildu taldeko zinegotzienak
- Kontrakoak: ez daude
- Abstentzioak: bi (2) EAJ-PNV taldeko zinegotzienak

Emaitza ikusita, alkatetzak mozioa onartutzat jotzen du.

7.- ERREGU ETA GALDERAK.-

Osoko Bilkurara publikoa etorri dela kontutan hartuta eta hitz egin nahi dutela jakinda, Alkateak ohartarazten du, Osoko Bilkuran hitzegin ahal izateko aurretik baimena eskatu behar dela eta idatziz azaldu nahi diren gaien berri eman behar dela aurkezlea behar bezala identifikatu ondoren.

Hala ere, bertan daudela kontutan hartuta, alkateak entzun egingo dituela komentatzen du.

Maria Jesus Elorriaga Bilbao andreak, aurrekontuaren onarpenean bideak konponduko direla esan denean bide guztiez ari diren galdetzen dio alkateari. Kasabene baserri atzeko bidea ospitaleko lanak direla eta apurtuta dagoela aipatzen du, eta inork ez duela ezer egin.

Alkateak, aurrekontua %8an jeitsi dela azaltzen du, eta dauden sarrera eta diru laguntzak kontutan hartuta joango direla inbertsioak burutzen. Dena dela, bidearen egoera ikusteko udal arkitektoa bertara bidaliko duela aipatzen du, txostena egin dezan eta horrekin Osakidetza lanen arduradun modura bidezko erantzunkizuna eskatzeko.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, batzarra bukatutzat ematen da arratsaldeko zazpiak bost gutxitan, eta horren sendespena egiten dut Udaleko bitarteko Idazkari naizen honek, Alkate Lehendakariaren oniritziarekin.

ALKATEA

BITARTEKO IDAZKARIA

Mikel Ander Zubizarreta Gonzalez-Rua

Saioa Pineda Aranburu